

El colectivo Otxantegi Herri Lurra, dispuesto a frenar otro desalojo

OTXANTEGI HERRI LURRA :: 03/05/2024

Otxantegi Herri Lurra bigarren desalojo saiakerari aurre egiteko prest

[Euskara]

Otxantegi Herri Lurra bigarren desalojo saiakerari aurre egiteko prest

Taldeak gosari desobedientea deitu du maiatzaren 7an, martitzena, goizeko 08:00etan

Auzokoen elkartasunari eta herri-antolakuntzari esker, aurreko desalojo saiakerak gelditzea lortu

genuen. Maiatzaren 7an berriro ere Otxantegi Herri Lurra lehengoan besteko irmotasunez defendatuko dugu. Goizeko 08:00etan gosari desobedientea deitu dugu hirugarren desalojo saiakerari aurre egiteko. Ezin dugu onartu Uribe Kostan geratzen zaizkigun nekazal lur guztiak

txikitzea, guztion etorkizuna hipotekatzea lurjabe gutxi batzuen eta eraikuntza enpresen mesedetan.

Aguirre-Lipperheide familia Berangoko azaleraren zazpirenaren jabe da, eta pelotazo honen bidez,

30milioi euro irabazteko asmoa du. Soilik Otxantegiko lursailean 8 hektarea lur emankor gal daitezke betiko. Krisi ekologiko bete-betean, tokian tokiko produktuak kontsumitzea eta elikadura

burujabetza zein garrantzitsua den jakinda, halako hirigintza proiektu diruzalea burutzea ekoizidio hutsa da.

Gainera, instituzioek, eta bereziki Berangoko Udalak, sinestarazi nahi digute eraikuntza uholde

honen xedea etxebizitza eskubidea bermatzea dela. Baina guk gure eta inguruko herrien bilakaera

ikusi dugu, zelan porlanak soro zein soloak grisez jantzi dituen. Hala ere, etxebizitzaren prezioak gora

baino ez du egiten, eta alokairuek gero eta estuago ito. Honek ez du zerikusirik etxebizitza eskubidearekin, gure kontura egindako negozioa da, besterik ez.

Bi urtez lurra landu dugu, espazioa elkarrekin ikasteko topagune bihurtu; eta horretan jarraitzeko

prest gaude. Berton ereindako haziak eraiki nahi duzen mundu grisean ernalduko dira.

Lurra defendatu! Otxantegi ez ikutu!

[Castellano]

El colectivo Otxantegi Herri Lurra, dispuesto a frenar otro desalojo

El colectivo convoca un desayuno desobediente el martes 7 de mayo a las 8:00 de la mañana

Conseguimos parar el primer intento de desalojo, en noviembre, gracias a la solidaridad de las

vecinas y la movilización popular. El martes 7 de mayo volveremos a defender Otxantegi Herri

Lurra con la misma determinación. Hemos convocado un desayuno desobediente a las 8:00 de la

mañana para hacer frente al segundo intento de desalojo. No podemos consentir que acaben con

todas las tierras agrícolas de Uribe Kosta, que hipotequen el futuro de todas, en favor de los bolsillos de unos pocos terratenientes y empresas constructoras.

La familia Aguirre-Lipperheide es propietaria de una séptima parte del suelo de Berango y pretende

embolsarse 30 millones de euros con este pelotazo. Solo aquí, solo en Otxantegi, se pueden perder

para siempre 8 hectáreas de tierras agrícolas. En plena crisis ecológica, cuando se ha demostrado la

importancia de la producción de alimentos de cercanía y la soberanía alimentaria (COVID 19,

precio de los combustibles, la inflación, etc.), un pelotazo urbanístico como éste es un ecocidio y

una condena para el futuro de todas.

Además, las instituciones, y en especial el ayuntamiento de Berango, insisten en hacernos creer que

tanta construcción tiene como objetivo asegurar el derecho a la vivienda. Hemos visto cómo el

cemento devoraba el paisaje al rededor de nuestro pueblos. Y a pesar de tanta construcción, no

dejan de subir los precios de las viviendas y los alquileres aprietan y ahogan cada vez más. Esto no

tiene nada que ver con el derecho a la vivienda, no son más que sus negocios a nuestra costa. La

política de urbanismo del ayuntamiento de Berango es antisocial y antiecológica.

Durante dos años hemos trabajado la tierra, hemos hecho de este espacio un lugar de encuentro para

aprender juntas. Y estamos dispuestas a seguir haciéndolo. Las semillas que plantamos en Otxantegi

florecerán en el mundo gris que queréis construir.

Lurra defendatu! Otxantegi ez ikutu!